


lantaldeak 2019

MARTXOak 21ean ZALDIBIAN X ERLEZAINAK	EKAINAren 22an ZIORDIAN X HERRITARRAK	IRAILAren 19an BIEZKO BASERRIA AXPE (BIZKAIA)  BARATZEZAINAK	IRAILAren 11ean LARRATEKO LANTARON (ARABA)  FRUTAZAINAK
Urriaren 19an MAEZTUN (ARABA)  OKIN-ZEREALISTAK	URRIAren 3an ABADIÑON (BIZKAIA)  ARTZAINAK	AZAROAren 26an ARBONAN (LAPURDI)  SENDABELARGILEAK	AZAROAren 28an IPARRALDEAN  ESNE-BEHIZALEAK

laguntzaileak

hazi




info gehiago

www.ehkolektiboa.eus

ehkolektiboa@gmail.com

+34 688 867 020



EHKOLEKTIBOA ELKARTEA

Euskal Herriko laborari eta herritar agroekologikoen kolektiboa

weborria:

ehkolektiboa.eus

sare sozialak:

twitter.com/EHKolektiboa

posta elektronikoa:

ehkolektiboa@gmail.com

Egoitza soziala:

Urteaga Kalea 21, 20570 BERGARA

Telefona:

(0034) 688 867020

IFZ:

G75168195

SARRERA

EHKOlektiboa laborariak bultzatutako mugimendua izanik, Agroekologiaren bidean pausoak ematen jarraitzeko jakintza eta esperientziak partekatzea ezinbestekoa dugu. Horregatik, ekoizpen arloko **lan-taldeetan antolatzen dira EHKOn laborariak** (2018tik aurrera herritarrak ere) eta urtero elkartzen dira gai konkretu batzuen inguruan hausnartzeko, formazio bidez teknikak hobetzeko edota proiektu zehatzak martxan jartzeko. Euskal Herri osoko pertsonak elkartzen direnean **laborarien arteko elkartasun indarrak lotzen dira; lan kolektibo batean parte hartzeak ematen duen babesari esker.**

Lantalde dinamikak erdigunean jartzen ditu laborariak: euren etxalde eta ekoizpenen garapena da helburu nagusia. Erabiltzen den metodologia CaC (Campesino a Campesino) bezala sistematizatua izan da, batez ere Hego-Amerikan, eta funtsean hezkuntza herrikoian eta informazio eta jakintza transferentzia horizontalean oinarritzen da –konfiantzan eta elkarlanean–. Hots, hartu-emanak sustatzean datza. Esperientzian oinarritzen den heinean, kasu praktiko eta konketuak lantzen dira, errealitatea aztertu eta etengabe garatu, berritu edo hobetzeko.

Bilera hauek sektoreak bizi dituen gabezia handienak identifikatu eta elkarrekin konpontzeko motibatzen dituzte laborariak. Egoeraren jabe egiten dira, sistemaren konplexutasunaz eta, azken finean, beraien ekoizpenaren, etxaldearen eta sektorearen etorkizunaren burujabe egiten dira Agroekologiaren bidean agente klabe eta protagonista bilakatuz. Lantalde hauek sektorea pizteko balio dute, eta ekoizleak EHKOlektibotik haratago antolatzen hasteko. Ekoizleen ahalduntzea trantsizio agroekologikoa eta elikadura sistema alternatiboen bidea sostengatzeko prozesurik garrantzitsuenetakoa bilakatzen da.

2019an 6 lan-talde elkartu dira Euskal Herrian zehar. Txosten honetan jaso ditugu egunen laburpenak, etxalde bisitak eta bilerak. Antolakuntza mailan, lan-talde egun hauek aurrera eramateko egin den lanaren aipamena egiten da eta komunikazio mailan egindako indarra azpimarratu nahi dugu. Azkenik, lan-talde hauek utzi dituzten hausnarketa eta ondorio nagusiak biltzen ditugu etorkizunen agroekologiaren bidean heman beharrra pausoak aurkitzen lagunduko gaituztelakoan, bai EHKOri eta bai gurekin batera bidea egiten duten bestelako pertsona, elkarte eta eragileei.



Irudiak: 2019ko hainbat lan-taldeetako argazkiak

FRUTAZAINAK

Frutazain lantaldea LARRATEKO (Lantaron, Araba) etxaldean bildu zen irailaren 11n.

11 pertsonak parte hartu zuten (2 emakume eta 9 gizonezko).

Bisita

LARRATEKO etxaldeak bi lursail ditu; horietako bat Euskadiko HAZI Sarearen fruta-arbolen mintegia da. Sareko kide diren 3 pertsonak aurkeztu ziguten antzinako frutarbolak berreskuratzeko egiten ari diren lana: barietateak bilatu, gorde eta biderkatzen dituzte eta ondoren "zaintzailei" banatzen dizkiete zuhaixkak.

Uzta garaia zenez, zuzenean zuhaitzetik probatu genituen hainbat barietate: Gorriska, Macintosh, Donzella Orlegia, Piriniotako Lorea, Morroliebre, Kamuesa eta hainbat "pero" (sagar eta udare nahaskera).

Bilera

Bileraren lehen zatian frutarbolen ongarritzea aipatu zen. Frutagintzan garrantzi handia eman behar zaio lurhari, eta gogoan izan behar dugu, urtero arbolari eman digun fruituei dagokin materia organikoaren %20 bueltatu beharko diogula ongari moduan, auto-ongarritze logika mantenduz. Lurralde ezberdinen kasuak ikusi ziren, Euskal Herrian ez baititugu klima eta lur mota berak eta horiei erreparatu beharko diegu. Bio-ongarriak nola egin eta nola aplikatu azaldu zen.

EHKO zuhaitza ardatz hartuta, honen sortze prozesua aipatu zen, eta irizpideen irakurketa egin zen. Frutazainen kasuan nabarmena da, ekoizpen dibertsifikatuak direla eta horrek zailtasunak ekartzen ditu, baserriaren barruan frutarbolak dituzten, edo fruitu txiki ekoizpen edo eta ardo eta sagardo ekoizpenen artean.



EHKOlek **tiboa**
AGROKOLOGIAREN BIDEAN

lantaldeak **2019**
FRUTAZAINAK

10:30etan
LARRATEKO, LANTARON
(ARABA)

egitaraua
IRAILAREN 11an

- Euskal Herriko Hazien Sareko mintegira bisita
- Lurra nola ongarritu
- EHKO zuhaitzaren errepasoa

Elkarrekin bazkalduko dugu!
laguntzaileak *info gehiago*

hazi
UDALBILTZA
PARTZELERIA

www.ehkolektiboa.eus
ehkolektiboa@gmail.com
+34 688 867 020

Ondo egon zen lan-taldea.
Bisitan, bariedade asko eta interesgarriak.
Bio-ongarrien informazioa ongi,
baina ez zen tekniketan sakondu.
Bukaerako eztabaidari,
ZUHAITZAren hausnarketari,
probetxu gehiago atera
Ahal izango genion,
batez ere arlo sozialean

Aner, BIEZKO baserria

OKIN-ZITUGILEAK

Maeztun elkartu zen taldea Mendialdeko Ogia okindegian, Urriaren 19an.
Topaketan 25 pertsonak parte hartu zuten; 9 emakume eta 15 gizonak.

BISITA

Mendialdeko Ogia okindegia bisitatu zen, bi taldeetan banatua. Ana eta Natxok kudeatzen duten okindegia bisitatu genuen. 4 pertsonako kooperatiba sortu dute ogiak egin, denda eta banaketak modu partekatuan kudeatu ahal izateko. Gasteizen eta inguruan egiten dituzte banaketak (kontsumo talde eta dendetan) eta okindegian bertan ere ongi saltzen dute (okindegi berria ireki dute 2019an Maeztun). Arabako ekoizle txikiekin elkarlanean antzinako gari bariatateekin ogiak egiten hasi dira eta ohiko gari eta zekalez gain bestelako garaiko elikagaiekin probak egiten ausartzen dira.


BILERA

Esukal Herrian zerealgintzak eta zerealgileek bizi duten egoerarekin analisiarekin hasi zen bilera. Zerealgile ezberdinek partekatutako hausnarketekin argi ikusi zen motibazioa badagoela antzinako bariatateak landatzeko, baina okinen konpromisoa behar dela bien arteko akordio bidez. Gainera, sektore barruko laborarien lankidetzak indartu beharko litzateke, makina, tresna eta azpiegitura partekatzea beharrezkoa izango delako zerealgintza ekologiko eta agroekologikoak garapena izan behar badu. Ekarpen eta proiektu oso interesgarriak ezagutzeko aukera bikaina izan zen.

Ondoren bi taldeetan banatu ziren eta okin eta zerelisten arteko aliantzen inguruan eztabaidatu zen. Talde batek oztopo nagusiak identifikatu zituen () eta besteak aukerak. Bukaerako eztabaidak argi utzi zuen motibazio egon badagoela salerosketak koordinatzeko baina bien arteko konpromisoak eta harreman justoak izateko



- Euskal Herriko zerealgintzaren egoera
- Bariatateen ezagutza
- Okin eta zerelisten arteko aliantzak
- EHKO ZUHAITZAREN errepasoa



Natxo eta Ana, Mendialdeko Ogia

BARATZEZAINAK

Biezko baserrian elkartu ziren baratzezainak, Anbotopean dagoen Axpen Irailaren 19an. 10 bat kide elkartu ziren, 4 emakume eta 6 gizonezko.

BISITA

Goizaren lehen partean, belarrei aurre egiteko hainbat tresna ezagutu genituen. Duela gutxi erostako bi tresna ekarri zituen laborari batek, eta hauek probatu ziren baratzean. Horrelako tresnen mugak eta zailtasunak partekatu ziren, eta lanerako hainbat teknika. Biezkon astoarekin egiten dute lan, eta ez dira bakarrik! Euskal Herrian animalia trakzioa hainbat laborarik erabiltzen dute. Ez da beti eroso, baina agroekologiaren bidean dauden etxaldeentzat guztiz erabilgarria da.

BILERA

Bilera bideratzeko EHKolektiboko BARATZEZAINEN ZUHAITZA hartu zen ardatz. Hauek dira bereziki eztabaidatutako puntuak:

- Bertako hazi eta landare ekologikoa: minimo bat bertako mintegi ekologikoa --> kasu askotan oso zaila da, baina gutxienez saiatu egin behar da
- Negutegiak ekoizpanare lagungarri, ez oinarri. --> klima aldaketarekin lotuta egon daiteke, baina joera handia dago gero eta negutegi gehiago jartzearen aldekoa.
- Profesional agrarioan egotea ez derrigorra (behintzat hasieran) // Prekarietatea

BIOLUR elkartearen egiten ari den "baratze proiektuen IRAUNKORTASUNAREN" lana aipatu zen eta honekin lotua bideragarritasun ekonomia eta arlo soziala sakonki eztabaidatu ziren. EHKOn babes sozialerako sare bat ehuntzea aipatu zen. Baratzezaintza proiektuen iraunkortasunaren gakoak hiru direla ondorioztatu zen: laborarien ekoizpen-teknikak, proiektuen bideragarritasun ekonomikoa eta arlo sozial eta pertsonalaren ongizatea.



EHKolektiboa
AGROEKOLOGIAREN BIDEAN

lantaldeak **2019**
BARATZEZAINAK

10:30tan 🕒
BIEZKO BASERRIA
AXPE (BIZKAIA) 📍
IRAILAREN 19an 📅

egitaraua

- Belarrei aurre egiteko teknikak
- Animalia trakzioa
- EHKO zuhaitzari erreparoa

Elkarrekin bazkalduko dugu!

laguntzaileak *info gehiago*

hazi
UDALBILTZA
PINTURRIA

www.ehkolektiboa.eus
ehkolektiboa@gmail.com
+34 688 867 020

Fue muy interesante porque hubo una parte muy práctica y luego la parte más personal, que para mí es muy importante. Seguimos con un atasco en la parte de los árboles, como trabajar los criterios es algo que habría que mejorar.

Ramon Roa, TierraPapelTijera

ARTZAINAK

Abadiñoko Anbe baserriko Aitor Urien artzainaren etxean elkartu zen lan taldea, Urriaren 17an.

7 artzain elkartu ziren, emakume bat eta bost gizonezko.

BISITA

Aitorren etxaldea eta bere lana ezagutu zen egunaren hasieran. Aitorren familian, beti mantendu dute etxaldea eta artzantzeriko lotura. Dibertsifikazioa izan dute beti ardatz etxean eta frutarbolak eta euskal txerriak ere badituzte gaztaren osagarri. Gaur egun ekologikora konbertsioan daude. Ardien bazkaren inguruan, Anbotoko lur komunalen inguruan eta abeltzantza ereduaren inguruan hitz egiteko balio izan zuen bisitak.

BILERA

Taldeak gai zerrenda sakona zuen, joan den urteetako eztabaidei jarraipena emateko asmoa baitzegoen: artzainaren bizia eta lanbidearen inguruan, eta artzain izatearen inguruan hausnarketa egitea zen ideia. Denbora gutxiegiagatik, EHKOren zuhaitzaren errepasoa egitearekin batera landu ziren gai hauek. Ardiei ematen zaien bazkaren eta pentsu etxeen inguruan eztabaidatu zen, etxaldearen autonomia garatze aldera garrantzitsua bait da honen inguruan hausnartu eta aldaketak egitea pixkanak.

Arlo sozialaren lanketan lan eta bizimoduen baldintzak aipatu ziren, eta nekazaritza ekologikoaren bilakaera eta giza neurriko etxaldea babesten dugunean horren atzean dagoen ereduaren defentsa egin beharra dugula ongi komunikatuz.



- Etxaldeko lanen antolakuntza aukerak
- Artzaina izatea, nortasuna eta bizitza
- EHKO ZUHAITZaren errepasoa
- Identifikazioa eta markak



info gehiago

www.ehkolektiboa.eus
ehkolektiboa@gmail.com
+34 688 867 020

*Positibo iruditu jatan;
elkartu ginen artzainen artean
adostasuna dago. Eta ez dagoenean ere,
nahi bat badago denen arten aurrera ateratzeko.
Nahiko zaila ikusten dut kolektiboan egon
eta irizpide denak errespetatzea,
Baina denboraz eta suabe- suabe, lortuko dugu.
Zabala, eta gusturora sentitzeko espazioa izan zen*

Aitor Urien, Anbe baserria

SENDABELAR TALDEA

Sendabelar taldea Jokin Zaldunbideren etxean elkartu zen Arbonan.

7 pertsona elkartu ziren, 5 emakume eta 2 bi gizun

BISITA

Jokin Zaldunbide Arbonan dago instalatua Arbonako udalak alotzen dizkion lurretan. Kasik bi hektarako etxaldean, hektara erdi bat du sendabelarrekin landatua. 40 bat sendabelar mota ezberdin ditu eta mendian bilketak egiten ditu. Landareak lehortzeko idortegi bat du eta ukenduak eta hidrolitoak ere egiten dituen arren, ekoizpenaren gehiengo tisanetarako baliatzen du. Merkatuan eta AMAP ezberdinetan saltzen du.

BILERA

Joan den urtean mahai gainean jarri zen sendabelarren ekoizpenaren inguruko formazio bat egitearen interesa, eta aurten proposamen hori berritsi eta formakuntzak behar lukeen programa irudikatzen saiatu dira. Hiru eguneko hiraupena izanen duen formazio saio praktikoa eta teorikoa egitea adostu zen.

Bestalde, oztopo handia den sendabelarren legedia, berriro ere mahai gainean jarri zen, eta sendabelar ekoizpena indartzeko beharrezkoa ikusi zen ikerketa bat egitea gaur egun legedia aldetik dagoen egoera, eta aukerak bildu ahl izateko. Euskal Herriko lurralde ezberdinetako araudiak kontuan hartuz eta iada eginak dauden lanetan oinarrituko litzateke txosten hau. Honen inguruan lanean jarraitzeko Skype bidezko bilera bat egingo da.



AGROEKOLOGIAREN BIDEAN

lantaldeak 2019

SENDABELARGILEAK



10:30etan

ARBONA (Lapurdi)

AZAROAK 26

egitaraua

-Sendabelar ekoizpenerako formazio programa

-EHKO zuhaitzaren errebasoa



Me pareció muy interesante participar en este grupo de trabajo para poder compartir Conocimientos, experiencias y dudas, entre la gente que ya se dedica a producir y gente que quiere empezar a hacerlo o ampliar conocimientos.

Itziar Mendizabal, Donostia

ESNE-BEHI TALDEA

Esne Behi lantaldea Ahatsan elkartu zen Xabi eta Johan Harlouchet anaien etxaldean.

8 pertsonak parte hartu zuten, denak gizonetzkoak

BISITA

Xabi 2015ean instalatu zuen eta duela bi urte Johanek ere famili ekoizpenean sartzea erabaki zuen. Ahatsan 25 bat behiz osatua dagoen tropa dute, gehienak Montbéliarde arrazakoak dira beren esne kalitatea gasnatzeko hobea delako. Urtean zehar behiek pentzeetara ateratzen dituzte eta barnean, belarra, luzerna eta arto idorra badituzte, ia dena eurek ekoiztua. Gazta oso berezia egiten dute, 20 kilokoak eta hilabeteak ontzen emandakoak.

BILERA

Eguneko eztabaida nagusia esnearen kalitatearen inguruan izan zen. Jendartean gaur egun behi esneak izan duen gainberaren aurrean ekoizpen ekologiko txikiak gai izan behar gara bezeroei adierazten zergatik den osasungarria esne mota hau. Etxaldearen manejuan, sasoin ezberdinetan eta ematen zaien bazkak esnearen zapore eta kalitateaz duen eragina aipatu zen. Kalitatea 6 parametroren oreka da: benetakotasuna (esaten dena izatea), kalitatea organoleptikoa (edo gustoa), nutritiboa (probiotiko, magnesio, kaltzioaren oreka), teknologikoa (sortzetik saalmenta arteko katearen bermea), inguremaren gaineko eragina (ekoizpen eredua) eta etikoa (pertsona eta sozial mailan). Bilera bukatzeko esne dastaketa egin zen. 2 esne pasteurizatu eta gordin bat probatu ziren, eta hauen ezaugarri ñabardurak eta gustuak partekatu ziren.



10:30etan
AHATSA
(Baxe-Nafarroa)
AZAROAREN 28an

- Esnearen kalitatea
- Komertzializazioa
- EHKO zuhaitzaren garapena
- Esne dastaketa

laguntzaileak



info gehiago

www.ehkolektiboa.eus
ehkolektiboa@gmail.com
+34 688 867 020

*Esnearen kalitatearen gaitzesko
ezaugarriak aipatu genituen luzez;
honen inguruko ezagutza sakontzeak
denbora hartu zuen.
Argi ikusi zen herrialde bakoitzean
pentsatzeko modu ezberdinak daudela.
Dastaketa arras interesgarria izan zen,
hiruak ezberdinak ziren.*

Mikel Azkarate, Jauregia

KOMUNIKAZIOA

Komunikazioa izan da aurtengo LAN TALDEEN antolakuntzan gehien zaindu den alorra.

Horretarako Talaio Kooperatibaren aholkularitza eta laguntza izan dugu eta euskarri fisikoei garrantzia eman zaie diseinatzaile baten laguntzaz iruditegia garatu dugu eta kartelak inprimatu eta erakunde ezberdinei banatu zaizkie.

BARNE KOMUNIKAZIOA eta antolaketa

2019ko la-talde proiektua martxoan hasi zen. Izan ere EHKOlektiboaren XII. Topaketan lan-talde dinamikak proposatu ziren urteko lan-talde egutegia egin eta ardurak adosteko.

Hurrengo hilabeteetan, bilerak egin dira lan-talde bakoitzeko arduradunekin. Bilera hauetan, lan-taldeetako gai proposamenak eztabaidatu eta landu dira, aurre-prestaketaren bidez, gaitegi aproposak bidaltzeko. Prozesu hau gainera Talde Eragilearen zeharkako lanketa batekin egin da, eta honi esker saio guztietan EHKOren ZUHAITZEN errepasoa egin da.

KANPO KOMUNIKAZIOA eta difusioa

Kanpo komunikazioan indarra jarrita lantaldeen parte hartzea EHKOlektiboko kide ez diren pertsonen parte-hartzea bultzatzeko. Guztira 22 pertsona berrik parte hartu dute, lan-talde ezberdinetan.

Baina batez ere komunikazioa EHKOlektiboko kideei iristera bideratu dugu. Horretarako sare-sozialak indartu digute. Posta elektroniko bidezko bidalketak biderkatu eta garrantzi berezia eman diogu telefono bidezko deiak egiteari. Honek lan ordu asko eskatu dizkigun arren, komunikazio zuzenak eraginkortasun handia du, kideen aktibazio eta motibazioa mantendu ahal izateko.

Txosten hau amaitzean, lan-taldeen laburpena kidegoari bidaliko zaio postaz eta horrek borobildu egingo du proiektua eta lan-taldeek izan dute eragina laborariengan.



ONDORIOAK

EHKO ZUHAITZEN errepassoa

2019. urteko lan-talde gehienek amankomunean izan dute EHKO ZUHAITZeri eman zaion errepassoa. 2018. urtean, esne-behi lan-taldeak motibaturik egin zen lehenbizikoz errepasso hau eta konturatu ginen 2014 geroztik kolektiboan parte hartzen hasi diren laborariak zuhaitzen irizpideak ez dituela ezagutzen; batez ere horien atzean egon ziren lanketa eta eztabaidak. Lan-talde bakoitzak bere moduan egin du errepassoa: batzuetan irakurri egin da eta beste hainbatetan eztabaidarako ardatz bezala hartu da. Irizpideak birpasatu, gaur egunera ekarri eta hausnarketa eta trukaketarako aitzakia ona izan dira. Baina baita ere ohartu gara EHKO identifikatzailea indartu ahal izateko lanketa sakona beharko dutela zuhaitz hauek konkreziara eta irizpideak zehazteren inguruko zailtasunak mahi gainean jarri dira

Arlo soziala

Zuhaitzen errepassoa egitearekin ikusi dugu digu, zuhaitzen adarretan agertzen den arlo soziala kasu gehienetan garatu gabe dagoela. EHKOLEktiboak agroekologia du ardatza, eta hildo horretan etxaldeetan eta laborariet bizi duten egoera eta baldintza sozialak landu beharreko gaiak direla argi gelditu dira. Arlo korapilatsua da hau, izan ere egoera pertsonalen lanketak aparteko denbora eta espazio erosoak eskatzen ditu, eta lan-taldeak elkartzeko dituzten aukera urriak motz gelditzen dira sozial mailak behar duen arreta lantzeko. Hala ere, hitzegiten den gutxiak asko laguntzen dien laborariei, ardurak arindu eta ezinegonak partekatzeko, eta oso eskertuak atera ohi dira.

Hala ere lan-talde espazioa bera, eta ondorengo bazkaria, modu informalean harremanak josteko aukera ederra dira, eta kasu askotan orduan ematen dira, elkarriketa interesgarriak, umoretik eta laguntasunetik.

Dinamizazioa eta konpromisoa

2019an komunikazioan indar berezia egin dugun arren bestelako eskasi batzuk nabarmendu ditugu. Lan-talde jendetsuenetan dinamizazioan indar gehiagoren beharra sumatu da, izan ere taldeak eta partaideak hitz-egiteko motibazioarekin, ez da erreza izan saioaren helburuak betetzea. Malgutasuna galdu gabe, eguneko plangintza errespetatzeko indar gehiago behar dela ohartu gara. Datozen urteetan, aurre-prestaketa lan gehiago egingo da dinamizaziotik eta batez ere taldeko arduradunekin.

Lan-taldeen iraupenaren inguruan hausnarketa egin beharko da. Kasu gehienetan saioak beranduago hasten dira eta horrek eguneko helburuetatik aldentzeko beste oztopo bat suposatzen du. Etxaldeetako lan-kargak ez du errez egiten, lanak alde batera utzi eta lan-taldeetan parte hartzea, baina urteko hitzordu honi duen balioa ematen saiatu behar gara. Lehenetsuneko hitzordu egin eta denentzako aberasgarria izan dadin.

Parte-hartzea eta lurraldetasuna

Elkartea lortu duten 7 lantaldetik 5, Eusko Autonomi Erkidegoan egin dira, bi egin dira Iparraldean eta tamalez 2019. urtean ez da egin lan-talderik Nafarroan 2019. EHKOn lurraldetasuna gai

transbertsala da, eta gure nortasunaren ardatz den heinean kontziente gara gertuagotik zaindu behar ditugula periferian dauden kideak. Nabarmena izan da Nafarroako eta Iparraldeko kideen parte hartze eskasia lan-talde gehientxoenetan. Lan garaiak eta urruntasun geografikoa oztopo handia dira lan-taldeen parte-hartzean, eta erronka hau erdigunean jarri eta alternatibak proposatuko dira datozen urteetarako. Hala ere esan dezakegu aniztasuna egon dela taldeetan eta talde guztietan pertsona berriak parte hartu dutela (guztira 22 pertsona berrik).

Pozgarria da ikustea nola lan-taldeen bidez laborarien hartu emanak estutzen diren eta EHKO komunitatea sortzen dugun.

Generoa

Generoa arrakala handia dugula antzeman dezakegu parte-hartzeak gertutik begiratzen baditugu. Orain arte, ez zen sexuen arabera zenbaketarik egiten, baina datuei erreparatuz, ondorio interesgarriak aurki ditzakegu.

PARTE HARTZEAK	GUZTIRA	EMAKUMEAK	GIZONEZKOAK
ERLEZAINAK	5	1	4
FRUTAZAINAK	11	2	9
OKIN-ZITUGILEAK	25	9	15
BARATZEZAINAK	10	4	6
ARTZAINAK	7	1	6
SENDABELAR TALDEA	7	5	2
ESNE-BEHI TALDEA	8	0	8

Taula honetatik hainbat ondorio atera ditzakegu. Alde batetik ohartzen gara askoz ere emakume gutxiagok parte hartzen dutela lan-taldeetan gizonezkoak baino. Lan-taldeetan emakumeen parte hartzea %28 koa izan da (bataz bestea). Gainera bereziki interesgarria da sektoreen arteko desoreka. Okinak, baratzezainak eta sendabelar taldean emakume ugariak parte hartu zuten arren, esne behin taldean ez zen emakumerik egon eta artzain lantaldean bakarra.

Bestalde gaur egun oraindik, etxalde askotan generoan oinarritutako lan banaketa egon badagoela badakigu, baina EHKOren etxaldeak osotasunean ulertzen ditugun heinean, ez al lukete etxaldeko kide guztiak parte hartu beharko lan-taldeetan? Egon ere badaude hausnarketa honetatik etxeko antolaketa aldatu duten etxaldeak. Horietatik ikaspenak bildu eta genero arteko oreka mahai gainean jartzeko beste gai mamitsu bat dugu hau.

Trukaketak

Laborarien balorazioei erreparatuz gero ondorioztatu dezakegu lan-taldeen baliorik positiboena, lan eta bizimoduaren esperientzien trukaketak direla, jardunak eta hausnarketak partekatzea hain zuzen ere.

Etxeko jardunak utzi eta laborari kideekin elkartzeak oraindik ere motibazio gune dira hainbat eta hainbat laborarientzako. Ez bakarrik egunean bertan sortzen diren informazio trukaketengatik, baizik

eta geroari begira sortzen den babes sareagatik. Beste laborarien harreman informazioa eramaten dute etxeetara eta ideia eta teknika berriekin bueltatzen dira. Beste laborari baten etxaldea ikusi eta han bertan bakoitzak dituen zalantzak partekatzeko aukera, teknikari eta aholkularien jakintzaren gainera dagoen informazio aberasgarria da.

Konfiantzan oinarritzen den sarea gainean elkarren arteko ezagutza eta harremana bultzatzen datza lan-taldeetan sortzen den giroaren funtsa.

Aurrera begira

Lan-talde askotan 2020ko prozesuei buruz hitz egin da, eta batzuek garatu dituzte datorren urterako proposamenak. Lan-talde batek formazioa bideratuko du, beste batek ikerketa, beste batzuk informazioa partekatzeko konpromiso hartu zuten eta hainbatek datorren urterako arduradunak zehaztu dituzte.

Lan-talde guztietan mahai gainean jarri da industria ekologikoa global (eta lokalaren) aurrean, EHKO ZUHAITZEN irizpideak lantzen jarraitzeko beharra IDENTIFIKATZAILEA bera indartu ahal izateko. Euskal Herriak behar duen garapen agroekologikoaren bidean, modu kolektiboan lanean jarraitzeko motibazioa ez da apaldu!

